



Aimar Uson kadete mailako Espainiako Txapelkun formatu olinpikoan eta Mikel Linacisorok eta Eneko Carreterok urrea eta brontzea Europako gazte mailako Kopan

2018ko uztaila. Gazteenen kemena, etorkizunerako ilusioa. Aimar Usonek formatu olinpiarreko Espainiako Txapelketa irabazi berri du kadete edo eskola adinean (13-14 urte) dauden eskalatzaileen mailan, Santiago de Compostelan.

Hara joan zen sei eskalatzailek osatutako taldea, eta lan ikusgarria burutu zuten. Euskal selekzioa bigarrena izan zen taldekako sailkapenean!

Gogotik egin dute lan gaztetxoek denboraldiko hitzordu garrantzitsu horri begira, emaitzak dira azken ondorioa, eta bidea, berriz, ikasgaia. Formatu olinpikoan jokatu zenez, Txapelketa oso gogorra izan zen, asteburu berean hiru sailkatze saio eta hiru final jokatu behar izan zituzten, esaterako, Aimar Usonek, Martzel Vicariok eta Haizea Osesek.

Abiaduran garaile, sokarekin bigarren eta blokean laugarren, nagusitasunez gailendu zen Aimar Uson. Martzel Vicariok laugarren amaitu zuen, blokean irabazita. Eta Haizea Oses bosgarren sailkatu zen orokorrean. Lucia Arlanzon blokean eta soka finalean sartu zen.

	Orokorra	Abiadura	Blokea	Soka
Aimar Uson	1	1	4	2
Martzel Vicario	4	5	1	8
Unai Tarilonte	23	20	23	22
Haizea Oses	5	2	4	7
Lucia Arlanzon	9	12	7	8
Ilia Uriarte	14	10	17	14
SELEKZIOKA	1. Madrid	2. Euskadi	3. Extremadura	

Mikel Linacisorok Urrea eta Eneko Carreterok Brontzea Europako Kopan

Asteburuko beste berri bikaina Munichen sortu zen, gazte mailetako Europako soka Kopan. Mikel Linacisorok urrezko domina irabazi zuen Junior mailan (18-19 urte) eta Eneko Carreterok brontzezkoa Youth A mailan (16-17 urte). Finalean eman zuten onena biek, sailkatze saioan 5. eginda sartu baitzen finalean Linacisoro, eta 6. eginda Carretero. Andoni Espartak ez zuen Youth A finalean sartzerik lortu, 13. sailkatuz. Espainiako selekzioarekin ari dira nazioarteko lehiaketetan hiru euskal eskalatzaileak.

